

# MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Zeintzuk izango dira gure bezeroak?

-Alde batetik Zumaia, Getaria, Zarautz eta Orio bitartean bizi direnei zuzenduko diegu bertako jatetxe edo tabernak dituzten jakiak.

-Lokaleetako kuadrileei zuzenduko gara, gero eta ohitura gehiago baitago gazteak lokaletan elkartzeko. Normalean telepizza egiten diren deiak zerbait jan nahi denean baina bestelako aukera zabalagoa egon.

-Hainbat industriagunetan ere gerta daiteke bertan jatetxe eta tabernarik ez egotea. Langileek janaria etxetik ekarri behar izatea, denbora gutxi dutelako bazkaltzeko edo autoa hartu behar dutelako taberna edo jatetxea dagoen lekuraino iristeko. Beraz bertako langileek ere gure zerbitzua erabili dezakete.

-Bakarrik bizi den jendea edo janaria prestatzeko denborarik izan ez duena eta etxera nekatuta iritsi ondoren sukadatzeko gogorik ez badu guregana joko du.